

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

IDAZKARI NAGUSIARI

ALKATETZAREN ETA TALDE POLITIKOEN EREMURA SARTZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko maiatzaren 16an PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 5ean Gipuzkoako ahaldun nagusiak bisita bat egin zuen Donostiako udaletxera, hiriarekin loturiko zenbait gai aztertzeke asmoz.

Bisita horren edukia alde batera utzirik, hura egin bitartean, harrerako arduradunek agindua jaso zuten ez ziezaiotela inori utzi Alkatezaren eta talde politikoen eremu barrura sartzen, eta hori guztiz ulertezina egiten zaigu, ez dagoelako inolako arrazoirik bisita horrek udal taldeen agendak aztoratzeko. Hala, harrera-lekura joan behar izan genuen, talde honekin bilera bat hitzartua zuten pertsona batzuk bertara sartu ahal izan zitezen.

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, alkateak erantzun zigun ez zutela halako agindurik eman. Hori dela eta, uste dugu kontraesanak daudela alkateak esandakoaren eta hilaren 5ean, ahaldun nagusia bisitan zen bitartean, gertatutakoaren artean.

Horregatik, honako interpelazio hau aurkeztu dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari berma dezala Alkatezaren eta talde politikoen eremu barrura sartu ahal izatea erakundeetako ordezkariak edo beste pertsona garrantzitsu batzuk bisitan diren bitartean, beste edozein egunetan egiten den bezala.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.